

## **Jolasaren garrantzia garapenean**

Jolastea funtsezkoa da haurren garapenean; zentzumenak suspertzen ditu, bereziki ikusmena, ukimena eta entzumena. Horrezaz gain, koordinazioa eta bestelako gaitasunak jartzen dira praktikan. Edozein adinetan, jolasa, garrantzia handiko jarduera bat da garapen egoki baterako. Ziurtasunez esan daiteke, jolas batzuk adin zehatz batean agertzen direla, eta ez agertzekotan haurren garapenean arazoren bat dagoenaren adierazle izan daitekeela.

Jostailu guztiak, esperimentatzeko modu bat dira. Batzuk, haurren irudimena erabiltzera zuzenduak daude, beste batzuk aldiz, beraien energia askatzeko bide dira. Are gehiago, beraien oldarkotasuna deskargatzeko lagungarriak dira. Hurrek, jostailu desberdinekin jolasteko beharra dute. Hauek ez dira zertan garestiak izan behar, ezta korapilatsuak ere; konplikatua badira irudimena eragozten dute. Jostailuak, gero eta aktiboagoak izanik, orduan eta jarrera pasiboagoa hartzen dute hurrek.

Gurasoek beraien seme-alaben jolasa behatu behar dute, beraien beharrezkoak hautemateko eta beraien gozameneko behar dituzten baliabide egokiak eskaintzeko. Halaber, batzutan, beraien jolasen parte hartzaile bilakatzen dira eta hori, seme-alabak ulertu eta haiengana hurbiltzeko bide onena dela esan dezakegu.

### Honako hauek dira jolasteak eskaintzen dituen onurak :

1. Gorputzeko mugimenduen koordinazioa erraztu egiten da.
2. Asebetetzen edo gogobetetzen duen jarduera bat da.
3. Sentsazio berriak aurkitzen dira.
4. Irudimena eta sormena garatzen dira.
5. Ikusmenaren eta motrizitatearen arteko koordinazioa errazten da.
6. Musikaren bidez erritmoa barneratzea ahalbidetzen da: auto-kontrola garatzen da.
7. Komunikatzeko beharra eta hizkuntzaren garapena sustatzen da.
8. Norberaren eta testuinguruaren ezagutza errazten da.
9. Besteekin harremanetan jartzeko moduak ikasten dira.
10. Gurasoekin lotura afektiboa (atxikimendua) hobetzen da.

Alderdi praktikoak:

- Distrakzioak murriztu egin behar dira: haurrek estimulu mota bakar bat prozesatzen dute; horregatik, jolasten denean bestelako zaratarik ez izatea gomendatzen da.
- Hurrei bakarrik jolasten irakatsi behar zaie. Hasieran baliteke piezak bere tokian sartzen lagundu behar izatea, baina gerora hobe da beraien irudimena erabiltzen badute.
- Jolastu eta gero, haurrek beraien jostailuak gordetzen ikasi behar dute. Modu horretan, eskatu ahal zaie jolas baten piezak bilatzea eta hauek topatzen dituzten heinean, armairuan gordetzen joatea.
- Gehiegizko estimuluak saihestu behar dira. Haurrek barneratu dezaketen informazio kantitate mugatua dute, eta nekatzea kaltegarria izan daiteke.

## **Laburpena**

Jolasa kanpoko mundua arakatzeko eta ezagutzeko bidea da; baina, era berean, haurraren munduan gertatzen dena azalarazteko modua ere bada: sentimenduak, ideiak, nahiak, beldurrak, haien adimenaren eta irudimenaren garapena. Jolas jarduerak eragin zuzena dute haurraren garapen orekatuan eta horrela egiaztatzen dute egindako hainbat eta hainbat ikerketek. Jolas jarduerak haurren garapen psikomotorean eta adimenezkoan eta alderdi afektibo eta sozialean dute eragina.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea  
Juan Luís Martín Ayala Doktorea  
ETXADI  
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Psicología de la Familia